

Emakumearen Eguna

sortu zituen eztabaida militantzia bakarraren eta militantzia bikoitzaren artekoa izan zen. Hasiera-hasieratik emakume independenteak edo autonomoak deiturikoak eta ezkerreko beste talde batzuetan militatzen zutenak elkarrekin izan ziren asanbladetan. Lehendabizikoek emakumeen egoerari alternatiba orokor batetik erantzun behar zitzaiola defendatzen zuten, emakumeen borroka ez zela beste inongo borrokaren menpe jarri behar, kondizionante nagusia emakume izatea zela. Beste alderdi batzuetan militatzen zutenek, berriz, emakumearen gain hainbat baldintzak eragiten zutela pentsatzen zuten: klase kontrasteanak edo nazio zapalkuntzak esate baterako, eta emakume izatea horiei eransten zitzaizen beste faktore bat zela.

Eta eztabaida horretatik zatiketarak ere etorri ziren. Emakume autonomoak biltzen zituen Lanbroa elkartearen asanblada barruko korrante modura eratu zen lehengo, baina gerora 1985ean Asanbladatik banatu egin zen. Mari Jose Urruzolak esan digunez «ez zen ideologia mailan bakarrik sumatzen konfrontazioa, metodoetan, kalera ateratzeko moduan ere nabaria zen. Guk emakume izateari eta emakumeen talde autonomoek egindako teorizazioari ematen genion garrantzia. Besteek, ordea, alderdi politikoen esanetara jotzen zuten sarri. Kalera ateratzen ginenean ere, nabaria zen alde».

Aldarrikapen eta lorpenak • Jakina, emakume taldeak ez ziren sortu euren artean eztabaida teorikoetan galtzeko. Kontzientzia hartzeko garaian horrek garrantzi handia bazuen ere, emakumeen egoera aldatzeko sortu zen mugimendu feminista. Lehendabiziko aldarrikapenak, aukera berdintasuna, lan bera lansari berarekin ordaintzea, etxeko lanak banatzeko premia, dibortziatzeko eskubidearen eskaera eta aborto eskubidea izan ziren, beste hainbat artean.

Oihartzun handiena lortu zuena aborto eskubidearen aldeko borroka izan zen. Izan ere, 1979an 11 emakume epaitu zituzten abortatzeagatik eta mobilizazioak oso handiak izan ziren.

Gaur egun, emakume guztiok aitortzen dute ordutik hona igaro diren 20 urteetan emakumeen egoerak hobera egin duela, eta hainbat lorpen izan direla. Baina oraindik ere emakumeak bigarren mailan daudela ikusten dute argi eta garbi, eta horrek borrokan aurrera segitzeko adorea ematen die. Begonia Mendiak argi eta garbi du zapalkuntzaren azken zantzuak desagertu arte asanblada baliagarri izango dela. Arantza Urkaregik, berriz, feminismoa bizitzeko arlo guztietara eramane behar dela uste du eta ikuspegi hori EILAS sindikatuan txertatzen saiatzen da. Urruzolak datorren hauteskunde europarrerako Espainiako Estatuaren prestaketa ari diren emakume hutez osatutako hauteszerrendan du jarria esperantza. Mila Idiakenez, berriz, Euskal Herria askatu nahian dihardu. X



Abortatzeagatik 1979an Bilbon epaitu zituzten emakumeen alde mobilizazio ugari eta oihartzun handikoak egin zituzten emakume taldeek. Goiko argazkian Lidya Falcon eta Cristina Alberdi orain arte Espainiako Gizarte Gaietarako ministro izan dena ikus daitezke manifestatzaileen artean. Errepresioa ere pairatu behar izan zuten manifestaldi horietan. ARTXIBOKOAK

Feminismo independente edo autonomoa

MUGIMENDU feministaren baitan garrantzi handikoa izan da militantzia bakarra edota bikoitzaren arteko eztabaida. Militantzia bakarraren aldeko emakumeek independente edo autonomotzat dute euren burua, eta horixe da 1985ean Bizkaiko Emakume Asanbladatik banatu zen Lanbroa kolektiboaren oinarria. Asanbladaren sortzaile izan eta orain Lanbroako kide den Mari Jose Urruzolak azaldutakoaren arabera, emakumearen zapalkuntza emakume izate beretik dator eta, ondorioz, menpekotasun horretatik ateratzeko, emakumeen berrezko planteamenduetan oinarriturik ulertu

behar da egoera eta baita aurre egiteko bideak bilatu ere.

Mugimendu feminista sortu zenetik, emakumeak garatu eta aurre egin behar zituen arazoek lehenetsuna izan zuten talde independentearen baitan. Hasieratik, sexualitatea, amatasuna, etxe-koandreen egoera, emakumeak lan egiteko zituen arazoak, abortoa eta beste hainbat gai lehenetsunezko gaitzat jo zituzten, Mari Jose Urruzolak nabarmendu duenez.

Euren literatura historiar zehar izandako emakume talde autonomoek utzitako idatziak dira. Feminismo independentea sufragismoari oso lotua egon

da sorreratik, Urruzolak dioskunez. «Alderdi politikoen ideologia alde batera utzi eta berrezko izaera duen ideologia berria landuz joan gara. Gizonek eratutako ideologietatik abiatu beharrean, historian zehar egon diren joerak baztertu eta gizartea garatzeko beharrezkoa den ideologia berri bat hedatzearen aldeko gara».

Lanbroa kolektiboak egungo gizartea eraldatzeko premiako ikusten du emakumeen kulturak garatu dituen balore positiboak berreskuratzea. Gizarte osorako, gizon nahiz emakumeentzat beharrezkoak diren baloreak berreskuratzea, hain zuzen ere. Gizonen

munduan dauden balore eta sistemak gailurra jo dutela pentsatzen dute eta euren us-tez balore berrien sistema beharrezkoa da gizartea aldatzeko.

Beste alde batetik, neska-mutikoen eta ahal den neurrian helduen ardura publikoak eta pribatuak banatzeko heziketaren beharra premiako gaitzat du kolektibo honek. Emakumeek, gizonen jardura politikotik abiatu gabe, balore sistema berri batetik politikan jardun eta erabakiak hartu behar dituztela pentsatzen dute. Ildo horretatik, hurrengo Europako hauteskundeetarako emakumeen hauteszerrenda eratzten ari dira. X

Hiru jardunaldi 20 urtetan

Euskal mugimendu feministak hiru jardunaldi edo topaketa egin ditu azken hogeitau urteetan, hirurak Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako Kanpusean. Honakoak dira bakoitzaren bereizgarri nagusiak:

✱ **1977:** Elkar ezagutzeko topaketak izan ziren, emakume izateagatik diskriminatuta sentitzen ziren emakumeak asko zirela konturatzeko. Emakumeen oso ordezkari zabalak hartu zuen parte, baita kristautasunaren ildotik inguratutako hainbatek ere. Aniztasuna oso handia izan arren, eztabaidak ez ziren oso gogorak izan, baina bai interesgarriak.

✱ **1984:** Ordurako euskal mugimendu feminista helduagoa zen, eta mugimendu zabal horren baitan talde ezberdinak eta planteamendu kontrajarririk sortzen hasi ziren. Nolanahi ere, gogoeta sakona izan zen bigarren topaketa honen ezaugarri nagusia. Eztabaida ez zen jada emakumeak zergatik bizi ziren zapaldu-ta, horri aurre egiteko zein estrategia aukeratu behar zen baizik. Indarkeria da eztabaidagaietako bat, eta planteatzen da emakumeek borrokarako eredu propiorik ba ote duten. Emakumeek euren berezitasunak badi-tuztela esaten da biltzura honetan, euren kultura eta hori gorde eta gizonekin konpartitu beharreko zerbait dela.

✱ **1994:** Hamar urteko etendaldien ondoren, 94ko abenduan egin ziren Euskal Herriko III. Topaketa Feministak Leioan. Aurreko biak baino dezente gogorragoak izan ziren, bai eztabaidetan erabilitako tonuarengatik, baita talde ugarien artean zeuden ezin ezkonduzko planteamendu eta iritziak ageri-agerian geratu zirelako ere. Euskal mugimendu feministaren barruan pluraltasuna izugarria zela argi eta garbi geratu zen, eta horixe izan zen jardunaldiotako ezaugarri nagusia. Era berean, 20 urte lehenago mugimendu feminista sortzen hasi zenean emakumeak jasaten zituen baldintzak eta ordutakoak oso diferentiek zirela nabarmen geratu zen. Identitateari buruzko kezka ere sortu ziren eta feminismoaren egin-kizun berriei buruzkoak ere bai. X